



ALDEZ AURREKO KONTSULTA, ONDARE ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGAREN, OINORDETZA ETA DOHAINTZEN GAINEKO ZERGAREN ETA ZENBAIT GARRAIOBIDEREN GAINEKO ZERGA BEREZIAREN ONDORIOETARAKO, AUTOEN ETA ITSASONTZIEN BATEZ BESTEKO SALMENTA PREZIOAK ONARTZEN DITUEN FORU DEKRETU PROIEKTUAZ.

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenak, I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan, iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkariotasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Ordezko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren eta zenbait garraio bideren gaineko zerga bereziaren ondorioetarako, autoen eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak onartu behar dituen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkariotasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, **urtarrilaren 26ra** arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.

AURREKARIAK	Hauen foru arauak: ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga eta zenbait garraio bideren gaineko zerga berezia.
--------------------	--



KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Autoen eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak onartzea, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren eta zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren ondorioetarako.
HURA ONARTZEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA	Beharrezko eta egoki da prezio horiek onartzea, aipatutako foru arauak horiek jasotzen dituztelako.
HELBURUAK	Aipatutako zergen ondorioetarako batez besteko prezio horiek onartuak egon daitezen, aipatutako foru arauak jasotzen dituzten ondorioetarako.
ORDEZKO KONPONBIDEAK, ARAUGINTZAZKOAK ZEIN ARAUGINTZAZ BESTEKOAK	Ez dago konponbide ordezkorik, zergaren egungo egituraren arabera.